

## **IGE-en ESKOLA ORDUEZ KANPOKO EKINTZAK ETA LANGILE BOLUNTARIOEN LANKIDETZA**

Abenduaren 3an BAIKARAKo Zuzendaritza Batzordeak egindako bileran erabaki zenez, lege arloko laguntza emango zaie eskola orduetz kanpoko ekintzetarako eta laguntzaile gisa jarduteko boluntarioak hartu nahi zituzten IGEei, txosten honetan esaten denari jarraituz. Informazio gehiago nahi duten IGEek BAIKARARA dei dezakete.

Ikastetxeetan eskola orduetz kanpoko hainbat jarduera egiten dira, eta horiek antolatzea lan zaila izaten da benetan. Hori dela eta, ikasturtez ikasturte ekintzak antolatzeko auziari irtenbideak bilatu nahian ibiltzen gara, lan horrek gurasook gure gain hartzeko moduko gastua izan behar duela kontuan hartuta.

Eskola orduetz kanpoko ekintzak antolatzea oso garesti ateratzen da batzuetan, eta kostuaren arriskuak ezinezko egiten du, sarritan, zerbitzu hori eskaintzea. Kontua are gehiago larritzen dute aurrekontu txikiak, ekintzetarako behar diren begiraleek eta gidek eta legediaren zorrotasunak.

Eskola orduetz kanpoko ekintzen auziari irtenbide orokorra ematea ez da erraza, baina ekintzaren arabeko irtenbide partikularrak bila daitezke.

Boluntarioak hartzea izan daiteke aukera bat.

Gure ikastetxeetan egiten diren eskola orduetz kanpoko ekintza gehienak kirol edo kultur taldeetako begiraleen bidez, edo ikasle ohien bidez, egiten dira, ez dira eguneroko ekintzak eta, sarritan, denbora libreko ekintza moduan hartzen dira, ekintza arautu moduan baino gehiago.

Kasu horretan izan daiteke bereziki lagungarri boluntarioen figura, ekintza horien antolaketa erregulatzeari begira.

### **Zer da boluntario bat?**

- eskuzabaltasunez lan egiten duena
- borondatez eta nahi duelako, laneko, funtzionaritzako edo merkataritzako loturarik gabe, edo betebeharrak pertsonal edo eginkizun juridikorik gabe.
- aberastasun xederik gabeko erakundeetan, eta programa edo proiektu jakinen baitan diharduena.
- soldatarik gabe.
- ordainduta aritzen diren zerbitzu profesionalen lana ordezkatu gabe, beri ere.

### **Zer betebeharrak ditugu IGEek, boluntarioei dagokienez?**

- Erantzukizun zibileko aseguruia egitea, hirugarrenentzat, beren jardueretan ari direla gertatzen diren istripuetarako (4 € urtean, gutxi gorabehera).
- Boluntarioen ekintzak antolatzen haiekin lankidetzan jardutea.
- Laguntza teknikoa, humanoa eta formaziozkoa ematea.
- Ekintzako gastuengatik diru ordaina ematea. Askotan, boluntarioek kostu ekonomikoak edo profesionalak hartzen dituzte beren gain, hainbat ekintza egiteko, eta hori kontuan hartu eta balioetsi beharra dago.

- Norberaren sinesmenak, duintasuna eta askatasuna errespetatzea eta arrazoi horiengatik inor ez baztertzea.
- Gizarteari egiten dioten ekarpenagatik errespetuz hartze eta haien lana ezagutzea.
- Nahi dutenean lana bertan behera uztea, aldez aurretik horren berri emanda.

### **Zer betebeharrak dituzte boluntarioek IGEekiko?**

- Antolaketan laguntzea, ahal duen neurrian.
- Hartzen dituen konpromisoak betetzea.
- Egokitzen zaizkion eginkizunak era aktiboan betetzea.
- Aurreikusitako formazio ekintzetan eta eskaintzen diren lanetarako eta zerbitzuetarako beharrezko diren ekintzetan parte hartzea.
- Diskrezioz jokatzeko, bere lana betetzen ari den bitartean jasotzen duen informazioari dagokionez.
- Berak diharduen ekintzan parte hartzen duten pertsonen edo taldeen eskubideak errespetatzea.
- Eskura jartzen zaizkion baliabide materialak zaintzea.
- Entitatearekin kontratua sinatzea eta kontratu hori betetzea.
- Boluntario kontratua BAIKARAREN eta boluntarioaren artekoa izango da, eta IGEaren onespena izango du.

### **Zer irizpide hartu behar ditugu kontuan boluntario batek gidatutako ekintza bat eskaintzeko orduan?**

- boluntarioek gidatutako ekintzek astean zenbat ordu hartzen dituzten (astean 2 eta 4 ordu).
- egingo den ekintzaren izaera:
  - § kirol ekintza
  - § kultur ekintza
  - § gizarte ekintza

### **Zein izan daitezke boluntarioaren profila?**

- ikasleak/ikasle ohiak
- ikasle ohien gurasoak
- herriko edo auzoko kirol, kultur, gizarte elkarteetako, GKEetako eta beste entitate batzuetako kideak.
- egin nahi den ekintzaren gaineko formazioa eta esperientzia kontuan hartu.
- 18 urte baino gehiago izan behar ditu; bestela, gurasoen baimena beharko du.
- beste alderdi batzuk ere hartu behar dira kontuan, izaera, ekintzan parte hartuko dutenen adinerako egokitasuna, ingurune soziala, ingurunearen ezaugarri kulturalak eta ekintzaren garapenean eragina izan dezaketen beste hainbat alderdi.

### **GARRANTZIZKO OHARRA:**

- KONTRATUA BAIKARAREN ETA BOLUNTARIOAREN ARTEKO HITZARMENA DA, IGEAREN ONESPENA IZANGO DU, ETA BOLUNTARIOAREN NAHIZ IGEAREN KONPROMISOAK ETA BOLUNTARIOAREN ESKUBIDE ETA BEHARRAK JASOKO DITU.
- BOLUNTARIOEN KONTRATU HORRETAN SARTUKO DIRA UNE HOETAN IGEEN EKINTZA GEHIENAK GIDATZEN DITUZTEN BEGIRALEAK